Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3793

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebazpenarena: Ebazpena, 2009ko ekainaren 5ekoa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena, 2009. ekitaldirako deia egiten duena, 2006ko urtarrilaren 17ko Aginduak aurreikusitako laguntzei dagokienez. Agindu horrek multimedia sistemaren bidez hizkuntzen ikastaroak egin dituzten edo tutoretza-zerbitzuak jaso dituzten pertsonei eman beharreko diru-laguntzak arautzen ditu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aldez aurretik homologatu behar ditu ikastaro eta tutoretza-zerbitzu horiek.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako akatsak antzeman dira Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen 2009ko ekainaren 5eko Ebazpenaren testuan (2009ko ekainaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 121. zenbakia). Ebazpen horren bidez, 2009ko ekitaldiko laguntzetarako deia egiten da, 2006ko urtarrilaren 17ko Aginduak aurreikusitako laguntzei dagokienez. Agindu horrek multimedia sistemaren bidez hizkuntzen ikastaroak egin dituzten edo tutoretza-zerbitzuak jaso dituzten pertsonei eman beharreko diru-laguntzak arautzen ditu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aldez aurretik homologatu behar ditu ikastaro eta tutoretza-zerbitzu horiek. Hortaz, dagokion zuzenketa egin behar da:

3724 (1/7) orrian, «Eskabideak aurkezteko epea» izeneko 2. artikuluan:

Honako hau esaten duen lekuan:

«Eskabideak aurkezteko epea 2009ko ekainaren 30ean bukatuko da.»

Honako hau esan behar du:

«Eskabideak aurkezteko epea 2009ko uztailaren 30ean bukatuko da.»

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3793

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Resolución de 5 de junio de 2009, del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, por la que se convocan para el ejercicio 2009, las ayudas previstas en la Orden de 17 de enero de 2006, por la que se regulan las ayudas económicas a las personas que hayan realizado cursos de idiomas multimedia o que hayan recibido servicios de tutorización, en ambos casos, previamente homologados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Resolución de 5 de junio de 2009, del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, por la que se convocan para el ejercicio 2009, las ayudas previstas en la Orden de 17 de enero de 2006, por la que se regulan las ayudas económicas a las personas que hayan realizado cursos de idiomas multimedia o que hayan recibido servicios de tutorización, en ambos casos, previamente homologados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 121, de 26 de junio de 2009, se procede a su corrección:

En la página 3724 (1/7), en el artículo 2 «Plazo de presentación de solicitudes»

Donde dice:

«El plazo para la presentación de solicitudes finalizará el 30 de junio de 2009.»

Debe decir:

«El plazo para la presentación de solicitudes finalizará el 30 de julio de 2009.»